

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

251

2017ko urria

TOKIKOM

BERTAKOA ETA
EKOLOGIKOA



“ALFONBRA GORRIA” DELA ETA

Azkeneko Mailopen agertutako artikulua inguruan, aldizkariko arduradunei adierazi nien bezala, nire iritzia plazaratu nahi nuke:

1- Ez dut bidezkoa ikusten iritzi artikulua bat izan beharko lukeena Mailope aldizkarian erreportaje gisa agertzea. Jarrirako izenburua, aproposagoa iruditzen zait prentsa horia praktikatzen duen aldizkari batena, are gehiago, tituluak adierazten duena ez datorrenean inondik inora errealitatearekin bat.

2-Artikuluaren garatzen diren argumentuak aztertzen hasi aurretik, bertan, inoiz esan ez duten esaldi bat agertzen dela jakinarazi nahi dut, “Enpresa pribatuei fidantza eskatu ohi zaie, baina lanak bukatutakoan egia da ez dela inolako baloraziorik egiten”. Errealitatea kontrakoa da: lanak bukatzen direnean, beti egiten da balorazio bat.

Artikuluari dagokionez, ez dakit nondik nora azaltzen duen Joxe Mari Amundarain jaunak, baso lanetan aritzen direnek egindako kalteak Kontzejuak ordaintzen dituela. Azkeneko 6-8 urte hauetan, Kontzejuak mendi bideetan egin dituen gastu guztiak eurite handien eraginez sortutako kalteak konpontzeko izan dira. Gehienetan, denetan ez esatearren, subentzioen bidez (Erreka Gorriko pista, Zataraingo pista, Ubako pista...).

Badirudi, bertan aipatzen diren subentzioak bere kasa sortzen diren diru-sarrerak direla. Hau ez da horrela: subentzio bakoitzaren atzetik lan eskerga dago. Lan hori, Kontzejuko kudeaketan ardura dutenek egiten dute. Uste dut badela lan hori baloratzen hasteko garaia. Are gehiago, Nafarroako Gobernuak errealitatea ikusi eta diru-sarrera horiek lortzeko dagoen zailtasuna kontutan izanda.

Kamioiak 30 tonarekin ibiltzen direla aipatzen duenean, zer esan nahi da? 30 tona egur daramatzala ala 30 tona osotara daramatzala? Kontutan izan, kamioiak berak 15-16 tona badituela eta 15-17 tona egur eramanez ditzakeela. Beraz, 30 tona, karga osoari dagokio. Eramanez dezakeen karga 10 tonatara mugatuko balitz (ez dut muga hori duen herririk ezagutzen eta gutxiagora mugatzeak ustiaketa ezinezkoa egingo luke) eta demagun 600 tonako baso bat atera behar dela, 40 bidaiatan egin

beharreko lana 60ra pasako litzateke. Honen ondorioz, azkenean 1.200 tona ibili beharrean, 1.500 tona ibiliko lirateke pistan, ateratzen den egun kantitate bakoitzari, kamioiaren pisua bera gehitu behar baitaio bidaia bakoitzeko. Hobe litzateke hau?

Ez nuke geratu nahi partikular askoren jarrera aipatu gabe. Ohikoa da, partikular bakoitzak bere basoa saldu ondoren gertatzen den prozesuaren inongo ardurarik ez hartzea: kontratistari basoa saldu eta kasu askotan hor bukatzen da dena. Zer da logikoagoa, Kontzejuaren gain ardura guztia uztea ala elkar lanean aritzea? Bada garaia, herritar bezala denok ditugun ardurez jabetzea.

Kontuan hartu beharko litzateke ere, hainbat pista ez daudela oinarri sendo baten gainean eraikiak. Zenbait pista, nahiko berriak izanik ere, oraindik asentatu gabe daude. Bestetik, lehen aipatu bezala, pista gehienak subentzio bidez egindakoak dira eta Nafar Gobernuak ez zuen mallazoa subentzionatzen. Ondorioz, azken material honek ematen duen trinkotasun eta indarra falta zaie.

Bukatzeko, Ubako pistaren aipamena egiten duenez, nahiz denbora dezente pasa izan basoa atera zutenetik, konponketaren afera ez dago itxita. Ez dakigu konponketa ateratzear dagoen baso lanak egin baino lehen edo ondoren izango den, baina dudarik gabe, iritsiko zaio bere momentua, non baso lanetan aritzen direnek, parte hartu beharko duten. Jakin behar da baita ere, baso lanetan aritu direnak ez direla pista horretan karga astunarekin ibili diren bakarrak; Kontzejuak harri-lubeta eta pista honen goiko zatia subentzio bidez egin zituenean ere, karga handiak ibili ziren.

Artikuluak irakurrita, badirudi arazo hau Arribe-Atalluko Kontzejuak bakarrik duela, baina ez da horrela: arazo hau Kontzeju eta Udal guztiek dute, inongo salbuespenik gabe eta larritasun berdintsuarekin.

Lazaro Goikoetxea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

MAILOPE:
GUNDU MAILO
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

AA

FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri



OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza



06



16



20

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Felipe Uriarte.

06 ELKARRIZKETA: Raul Zelik

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Urriko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: San Migel aingeruaren zaharberritze lanak.

19 KULTURA

22 ELKARRIZKETA: Araitzen lan eta bizi.

24 KIROLA: Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala.

26 OREKA OSASUNTSUA

27 NOR DA NOR?

28 PLAZATIK PLAZARA: Lezaetako ogia.

31 JOANDAKOAK GOGOAN

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, Juan Antonio Garaikoetxea, Andoni Tolosa, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Ibarberri ikastetxea, Felipe Uriarte, Berri Txarrak, Klaus Armbruster, Nere Iriarte, Camino Garalda eta Oihana Goikoetxea.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitx Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



Iturraskarri, bideak eta harraskak berritzeko egitasmo soziala

Irailaren 13an proiektu hau gertutik ezagutzeko aukera izan genuen 5. eta 6. mailako ikasleek.

Izaera sozialeko proiektu bat izan arren, turismoa sustatu eta bertako ondarea, kultura eta natura babestu nahi ditu egitasmo honek. Hamabigarren urteurrena dute aurtengoa eta sari eta aitopen ugari jaso dituzte. Ospatzeko, beraien lana gehiago zabaltu nahi dute gizartera eta hau dela eta txango desberdinak antolatu dituzten zonako eskola eta herritarrentzat, bide hauen edertasunaz gozatu eta merezi duten zaintza eta errespetuaz sentibilizatzeko. Asko gozatu genuen bideaz eta gauza berri ugari ikasi genituen. Ea denon artean, talde honek egindako lana zaintzen dugun hemendik aurrera.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiegu Iturraskarrikoei gure ondarearen alde egiten ari diren lan guztiagatik. Mila esker!!



eskolatik
mailopera



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURUeco

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42



BEHIA HIL EGIN DA!

Arruizko Etxeberria behi ganadutegian bazen oso maitea zuten behi bat, *Edurne Image NAAL-5722*. Joan den uztailean hil zen, 20 urte bete baino bi egun lehenago. 175.625 kilo esne baino gehiago eman zien bere jabeei. CONAFeren arabera, estatu osoan kopuru hori baino gehiago eman duen bosgarren behia zen.



EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren 3an izanen da Euskararen Eguna. Larraun eta Lekunberriko Euskara Batzordeak egun hori behar bezala ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu nahi ditu. Horiek erabaki eta antolatzeko bilera irekia egingen dute urriaren 3an, asteartea, arratsaldeko seietan, Lekunberriko udaletxean. Animatu eta parte hartu!



AURKI DISKO BERRIA KALEAN

Berri Txarrak taldea Estatu Batuetan dabil disko berria grabatzen. Bill Stevenson ekoizlearekin aterako dute euren bederatzigarren diskoa. Aurreikuspenen arabera urte amaierarako egonen da kalean. Grabaketa lanen ondoren Kanadan eta Estatu Batuetan zehar hainbat kontzertu eskainiko dituzte.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Felipe Uriarte (Gaintza)

**Mendian ta bizitzan
nahi dugu gorena**
horixe entzuten da
munduan gehiena.

Gorena ez da izaten
beti polittena
aukeran nik nahiago
beti ederrena.

Eguzkiak urtzen du
han goien **elurra**
batera urtzen digu
baitere **beldurra**.

Beldurra uxaturik
hortxen da **gailurra**
handikan botako dut
bihotzetik **agurra**.

Doinua: Pasaiako plazatik.

Hurrengoarentzakoo puntua:

Euria goitik behera
baserrin su-bajuan

Oinak:

Goibel, umel, zimel, ospel.



“Orain erronka militantzia modu berriak sortzea izango da”

Alemanian jaioa da eta hainbat urtez Hego Ameriketara bizi izan den arren, Berlinen bizi da egun. Hala ere, ederki ikasi du euskaraz eta badu gure eskualdearekin lotura. Azkeneko 30 urte hauetan gutxitan gelditu da udan Uztegiara etorri gabe. Politologoa eta autorea da. Ez diogu berarekin egoteko aukerari ihes egiten utzi.

Alemanian jaiotako zu bezalako gazte bat nolatan iristen da Uztegiara?

Nik hamazazpi urte nituen lehenengo aldiz etorri nintzenean. Portugalen euskal errefuxiatu batekin egin nuen topo, eta Euskal Herriko zenbait txokotan bizi ziren bere senitartekoak ezagutzera bidali ninduen. Horrela, Uztegiara bere lehengusuak ezagutu nituen. Ongi aski gogoratzen dut Uztegiara lehen aldiz etorri nintzeneko data, 1987ko apirila. Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenaren aste horretan iritsi bainintzen.

Eta geroztik maiz bueltatu zara...

Ez dakit zehazki zergatik bueltatu nintzen, hainbat arrazoiengatik izan zela uste dut. Lur hau oso

“Uste dut Euskal Herria oraindik ere elkartasunezko balioak existitzen diren leku bat dela”

polita da, ibar hau batez ere. Eta Goikoetxea familia ere oso esku-zabala izan da beti nirekin, etxeoko bat banintz bezala hartu izan naute beti. Horregatik ausartzen nintzen beti bueltatzera. Eta hemen egiten den nekazaritza lana ere gustatzen zait, belarretan aritu izan naiz etorri naizen bakoitzean. Haurrik ez nuenean, uztail edo abuztu aldera etortzen nintzen beraiekin hiru edo bost aste pasatzera, eta beraiekin belarretan aritzera.

Baina arrazoi politikoengatik ere etorri izan zara...

Bai. Euskal gatazkarengatik edo ezker abertzalearengatik ere. Ni beti izan naiz alemaniar ezker internazionalista batekoa, beti parte hartu izan dut Latinoamerikarekiko elkartasun mugimenduetan. Eta euskaldunen eskubide sozial eta demokratikoen aldeko ekintzak ere egiten hasi ginen eta euskal preso politikoak bisitatzen.

Orain dela 30 urte iritsi zinen hona eta oraindik ere udaro-udaro Uztegiara etortzen jarraitzen duzu. Horrenbeste markatu al zintuen hemen aurkitutako guztiak?

Bai, pare bat urtetan ez nintzen etorri Hego Ameriketara lanean nentzela, baina Europara nagoen bakoitzean etorri egiten naiz. Azkeneko bost edo sei urte hauetan nire seme-alabekin etorri naiz eta hori niretzat garrantzitsua da, beraiek



Raul Zeli, joan den abuztuan izan zen azkenekoz Uztegin. Arg: Andoni Tolosa.

ere harreman hori heredatu ahal izatea, bai lagunekin, bai familiarekin eta baita lur honekin eta komunitate-espíritu honekin ere.

Komunitate-espíritu?

Bai, agian pertsona askok ez dute hala sentituko, baina nik uste dut Euskal Herria oraindik ere elkartasunezko balioak existitzen diren leku bat dela, komunitate-balioak. Adibidez, lehengo batean nire sare sozialetako batean festetako argazki bat zintzilikatu nuen. Eta lagun asko harritu egin ziren ikustean festa batzuetan ehun pertsona bazkaltzera elkartu ginela. Hemen maiz antolatzen dira herri-bazkariak, dirua biltzeko, elkarrekin egoteko, ber-tsoak entzuteko... Eta festa antolatzeko moduan ere ikusten dira balio horiek... Komunitateko gazteek hartzen dituzten ardurak etab. Berezko antolaketa prozesu bat da. Bizilagunen artean laguntzeko kultura hori... Gauza asko dituzue hemen. Eta uste dut Europako beste zenbait lekutan ere badirela antzekoak, baina nire ustez, Euskal Herrian beste inon baino biziago mantendu dira eta oso balio garrantzitsuak dira, nire seme-alabei ere transmititzea gustatuko litzaidakeenak.

Zehazki zer eman dizu Uztegi? Edo Goikoetxea familiak?

Goikoetxea familiak niri, familia eskuzabal baten eta familia lotura oso indartsu baten irakaspena eman dit eta hori niri betidanik gustatu izan zait. Lana, otorduak eta eguerdiko denbora libre beraiekin partekatzea... Nik ere familia nahiko handia daukat, bost senide gara, baina hemengo niretzat oso familia polita da eta oso interesgarria hain familia handia izanik eta hain elkarturik egonda... Uztegi askorentzat leku turistiko gisa izanen da interesgarria eta niri ere ikaragarri gustatzen zait bertako



Aralarren Goikoetxea familiarekin.
Arg: Maider Agirrebarrena.

paisaia, baina batez ere bertan egin dudana lan fisikoa gustatu zait, hiru aste horietan belarretan aritzea, etxera nekatuta iristea. Normalean bakarrik egiten dut lan, idazten eta hemen aldiz, lan fisikoa maite dudana jendearekin partekatzen dut eta hori oso gogobetegarria da.

Zure doktore ibilbidean zenbait liburu idatzi dituzu, horien artean *Lagun armatua* izeneko nobela. Nola bururatu zitzaizun nobela hori idaztea? Uztegin bertan giotutakoa dela dirudi...

Nobela herri txiki batera iristen den gazte bat irudikatu nuen. Herri hori Uztegi izan zitekeen bai. Uste dut European oso gutxi landu den gaietako bat dela eta jorratzen zenean hesi informatibo bat zegoen. Komunikabideek kontatzen digute, ETako biktimei ez zaiela merezi duten aitortza eman. Nik uste dena alderantziz izan dela, hedatu den diskurtso bakarra ETako biktimena izan dela. Eta Euskal Herrikanpo, gaur arte ez du inork torturari buruz ezer jakin nahi. Ez du inork eza-

“Euskal Herrian komunitate-balioak beste inon baino biziago mantendu dira, nire seme-alabei ere transmititzea gustatuko litzaidakeenak”

“Hemen hainbat egunkarietako zuzendariak atxilotu dituzte eta Guardia Zibilaren eskutan torturatuak izan dira, hori ez zaio inori interesatu”

gutu nahi 5.000-10.000 tortura kasu daudela Europaren erdi-erdian, hemen hainbat egunkarietako zuzendariak atxilotu dituztela eta Guardia Zibilaren eskutan torturatuak izan direla. Hori ez zaio inori interesatu. Afrikako gudetan tortura kasuak salatu dituzten giza eskubideen aldeko erakundeek, hemen ez dute ezer egin.

Horregatik erabaki al zenuen liburu hori idaztea?

Ni egunkari askotan artikuluak argitaratzen saiatu nintzen, baina ez zuten gai horri buruzko artikulurik kaleratu nahi. Horregatik nobela hori idazten hasi nintzen, lurralde honen historia kontatzeko modu bat delako eta pertsona gehiagori lagundu diezaiokeelako. Eta funtzionatu zuen, irakurleak izan zituen bai Alemanian eta baita Euskal Herrian ere. Nahi baino gutxiago izan zituen espainiar estatuan eta publiko horrentzat ere idatzi nuen, baina gai honekin beti gertatu ohi den moduan, ez dute euskal gatazkari buruzko bestelako narrazioak ezagutu nahi.

Nobela biolentziari buruzko gogoetak egiten dituzu...

Nik Latinoamerikan euskal errefu-

xiatu asko ezagutu ditut eta asko eztabaidatu dut eurekin biolentziari buruz, biolentzia ezaren etikari buruz, zerbait egin behar eta zer egin ez jakiteari buruz... Eztabaida horiek nobelan ere azaltzen dira. Bertan biolentziaren gaia hausnartzen da, mundua aldatzeko nahiaz eta bilatzen duzun helburu etikoarekin kontraesanetan dauden gauzak egiteari buruz.

Gaur egun, berriro ere Alemanian bizi zara ezta?

Bai, Berlinera bueltatu naiz. Orain unibertsitatera bueltatuko naiz lanera, lehen hiru hilero baina normalean freelance moduan egiten dut lan, Alemaniako irratietarako, nobelak idazten jarraitzen dut, itzulpen lanak egiten ditut, politikari buruzko konferentziak eskaintzen ditut... Lan esparru ezberdinak tartekatzen saiatzen naiz.

Nola ikusten duzu ETaren amaiera? Armak bueltatu dituzte, baina presoek espetxeetan jarraitzen dute... Uztegi Txus Goikoetxea esaterako, Sevillako espetxean dago.

ETaren biolentzia amaitutakoan dena alda zitekeela esaten ziguten



Raul eta bere seme-alabak Goikoetxea familiarekin. Arg: Goikoetxea familia.

eta orain ikusten dugu ez dela ezer aldatu. Ez dute gaiari buruz hitz ere egin nahi. Frustragarria da, baina horrek ez gaitu harritu behar, hain zuzen ere hori da beraiek gudan sortu nahi duten sentimendua. Borrokatzeak ez duela ezertarako balio erakutsi nahi digute. Eta nire ustez hori gezurra da. Beti merezi du borrokatzea, beti aldatzen ditu gauzak. Bestalde, oso pozik nago ETAK armak utzi izanarekin, nire iritziz, borroka armatuak aspalditik gizakiari min egiteaz gainera, kalte politikoa egiten zuelako. Eta talde matxinatu baten estrategiak beti sinpatia politiko handiagoa izan behar du. ETaren borroka armatuak aspaldian ez zuen sinpatia handirik sortzen gizartearen zati handi batean. Horregatik oso positiboa iruditzen zait pauso hori eman izana inolako alternatibarik gabe.

Eta orain?

Orain erronka militantzia modu berriak sortzea izango da eta kezkarria da orain askok pentsatzea ETA desagertu delako dena alderatu egin behar dela, militantziarako kultura hori, konpromisoa hartzeko kultura, gauzak eztabaidatzea... Hori mantendu egin beharko litzateke-ela uste dut. Euskal Herrian oso indartsua zen militantzia kultura horrek, ez du zertan derrigorrez armen erabilerarekin loturik egon. Horregatik, hori mantendu egin beharko litzateke, gazteek eta belaunaldi berriek espirtu kritiko, errebelde eta desobediente hori mantendu dezatela.

Uste dut, denbora batez bakarrik egongo zaretela, Espainiak gai hori perfekzioz estaltzen duelako eta horregatik frustrazio sentazio hori mantendu egingo dela iruditzen zait eta ez dut ikusten epe mo-tzean presoan gaiari konponbidea emanen zaionik. Baina estatu espainiarraren krisia mantentzen ari da. Kataluniaren gaiak kontraesan berriak sortu ditu eta horren nabarmentzearekin euskal gatazkaren gaiak berriro ere garrantzia hartuko du nazioartean.



Uztegin belarretan aritzea oso gogoko du Raulek.
Arg: Labrit.

Eta zein jarrera izan behar dugu euskaldunok hori gertatzen denean?

Euskaldunek horretarako prest egon behar duzue, olatu hori aprobetxatzeko mobilizaturik egon. Gai horren atzean arazo demokratiko bat dago, espainiar estatuak demokrazian gabezia handia du. Hemen ia torturaztaile bakar bat ere ez da kartzelara joan. Eta horregatik da beharrezkoa gaia zalantzan jartzen jarraitzea eta oinarrizko eskubide demokratikoak lortzeko borrokatzen jarraitzea.

Nola ikusten duzu Nafarroa? Aldaketa benetan gertatzen ari al da?

Iruditzen zait gauzak ongi lotu dituztela zenbait gai agendan jarri ahal ez izateko. Baina, badira baloratu beharrekoak ere. Nafarroan hain indartsua izan den eskuina ahuldu egin da, baita Opus Deiren eragina ere, horrek atzera egin du. Hemen tasa fiskalak definitzeko aukera duzue, aberastasun banaketa aldatzeko aukera duzue, eta horrekin politika soziala egin dezakezue. Triste da Geroa Baik sarrera altuei eta ondasunen gaineko zergak igotzeko aukera aprobetxatu nahi ez izatea. Alde horretatik, oso gutxi egiten ari da. Baina bestalde, garrantzitsua da aldaketa hori gertatu izana, ikusi da indar progresista ezberdinak elkartuz posible dela PP eta PSOEek osatzen duten blokea aldentzea.

“Euskal Herrian oso indartsua zen militantzia kulturak, ez du zertan armen erabilerarekin loturik egon”

Kim Jong Un eta Donald Trump



●● Mikel Hernandez



●● Andrea Etxarri

Kaixo, Andrea!!! Gaurkoan txakurra eta katua bezala dabilzan bi politikariri buruz arituko naiz: Donald Trump eta Kim Jong Un. Egia esan, ez dakit bi herrialde hauetan hain muturreko bi presidente izan ote dituzten inoiz. Alde batetik, herriko festetan petardoak botatzen diren bezala, koheteak jaurtitzen dituen estalinismo erradikala, eta beste alde batetik, Ku Klux Klaneko eskuin muturreko ideologiatik oso gertu dabilen eta konfrontazioa bilatzea ezer kostatzen ez zaion pertsona hau. Esaten den bezala, gosea eta jateko gogoa elkartu dira.

Arazoa aspalditik, Gerra Hotzetik, datorren arren, ukaezina da egun hauetako batean bi herrialde hauen artean misil jaurtikitak izateak ez nindukeela batere harrituko. Honen harira, aipatu nahiko nuke muturreko ideologiek, nire ustez, ez diotela inorri mesederik egiten, eta ez soilik politikari dagokionez, baita bizitzari dagokionez ere. Eta hemen dator konfrontazioa edota gatazka. Zergatik nahia-go dugu momentu askotan elkarrizketa alde batera utzi eta gatazka bilatu? Zein mesede egiten digu mehatxua edota gorrotoa erabiltzeak? Nire ustez, ez digu mesederik egiten.

Hala ere, askotan pentsatu izan dut gizakiok muga batzuk ditugula, eta muga horien artean, bestearen lekuan jartzea eta barkamena eskatzea nahiz elkarrizketa erabiltzea daude. Zergatik kostatzen zaigu hainbeste gure akatsetatik ikastea eta behar denean barkamena eskatzea? Arlo emozionalari, akaso, ez diogulako garrantzi handirik ematen? Agian gaur egungo gizarte materialista honetan gehiago landu beharreko arloa litzateke. Gabezia handiak ikusten ditut arlo emozionalean, Andrea. Zuk nola ikusten duzu gaia? Besarkada bat!!

Mikel! Zer moduz? Egia esan aurtengo iraila indartsu hasi da, berri batzuk eta besteak direla, badirudi batzuek udan denbora gehiegi dutela pentsatzeko, eta ez dituzte preseski beren pentsamenduak gauzak eraikitsera bideratzen.

Donald Trump eta King Jong Un. Batak burua galdu ta besteak ez daki non duen. Ba egia esan honelako lehendakariak egotea harrigarria iruditzen zait. Hau honela, ez dakit zer den deigarriagoa, horren gizatasun baxua eta edukazio nahikorik gabeko buruak boterean egotea, edo hauek berez gero eta prestatuagoak eta informatuagoak dauden herritarrek aukeratuak izatea.

Zuk esan bezala, gizakiok muga batzuk ditugu. Beno, mugak baino norberaren "askatasunean" gizatasunez jokatzeko gurekiko eta besteekiko konpromiso edo erantzukizunak.

Hala ere, eta aipatu duzun adibidea eredu, badirudi oraindik ere bide luzea dugula ibiltzeko. Ados nago, horretarako beharrezko da hain ezaguna dugun enpatia lantzea, denok besteen oinetakoak jartzen jakitea.

Baina, nahikoa al da bestearen azalean jartzearekin? Nahikoa bestea nola sentitzen den interpretatzea, sentitzea, ulertzea? Nahikoa al da ondokoarenean samina dagoela ikusi eta gorrotoa/mina sentitzea? EZ! Ziur nago horrekin ez dela nahikoa. Enpatiak ez du nahikoa indarrik akziora bultzatzeko. ESKUZABALTASUNA da beharrezkoa dena. Hor ikusten dut nik hutsa. Besteak benetan ulertu, lagundu zein gerturatzeko beharrezkoa da deseroso sentitzeari beldurra galtzea, ausarta izatea.

Benetako eskuzabaltasunak aldebiko sentimendua pitzen duela uste dut: deserosotasunaren mina, gizatasunaren laztana. Pertsona ausartak izan eta pertsona ausartez inguraturik egon gaitzela!





Jone Castrillo Cruz
 Urriak 23, 9 urte.
 Zorionak Jone!
 Asko maite zaitugu!
 Ondo pasa zure eguna, Atalluko familiaren partetik!



Maia Navascues Martija
 Urriak 4, 6 urte.
 Zorionak Maia familia guztiaren partez.
 Oso ongi pasa zure eguna.
 Muxu handi bat aita, ama, Unax eta Lorea.



Egoi eta Izarne Eskamendi
 Urriak 26 eta 28, 7 eta 9 urte.
 Zorionak bikote!! Oso ongi pasa zuen egunetan eta kontuz ibili pistoleroekin!!
 Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Kaieten partez.



Gari Arraztio Estanga
Aiara Arraztio Estanga
 Urriaren 3an, urte 1.
 Urriaren 27an, 4 urte.
 Zorionak polittekk!! Ongi pasa zuen egunetan eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Ane Buldain Garzaro
 Urriak 10, 10 urte.
 Zorionak guapa eta oso ongi pasa zure urtebetetze egunean.
 Muxu haundi bat guraso eta Mikelen partetik.

Ekaitz Eskamendi Alduntzin
 Urriak 6, 11 urte.

Zorionak Ekaitz, oso ongi pasa zure egunean!
 Muxu handi bat atte, ama eta Aintzaneren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
 Laborala
 Kontabilitatea
 Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Nafarroa Bizirik Fundazioa
 Enneco, haritzaren memoria proiekturako lan eskaintza.

Komunikazio, koordinazio eta komertzializazio arduraduna

- Jornada erdila
- Esperientzia baloratuko da

CVak: komunikazioa@enneco.eus
 Urriaren 8a baino lehen



German Lasarte

HARATEGIA

Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

BESTE BI IKUR FRANKISTA GUTXIAGO

Ikur frankistak kenduz jarraitzen dute Araitzen. Udan Azkarateko lehenengo etxeak zuen mural frankista kendu zuten. Orain beste bi kendu dituzte, Lizartzara doan errepideko tuneletako baten gainean zegoen Nafarroako armarrria eta Arribe-Atalluko 2. industrialdeko 121. lursaileko eraikinean zegoen Nafarroako armarrriak zuen laurreada. Nafarroako Gobernuak iazko abenduan onartu zuen ikur frankistak kentzeko egitasmoa eta 224 ikur baino gehiago aurkitu ditu Nafarroa osoan. Bakea, elkarbizitza, askatasuna eta demokraziaren balioen kontra doazen ikurrak espazio publikotik kendu egingo dituzte.



MEREZI BEZALAKO INAUGURAZIOA

Pasa den otsailean AEK-ko hainbat ikasle egoitza berrian ikasten hasi ziren. Azkeneko urteotan txikia gelditu zaie Larraungo udaletxe azpiko egoitza. Pixkanaka joan dira Lekunberriko Artzanegi kaleko 6. zenbakiko egoitza behar bezala atontzen eta ikasturte berria bertan hasi dute ikasle guztiak. Joan den irailaren 15ean behar bezalako inaugurazioa egin zuten. Bertan izan ziren, udal ordezkariak, AEK-ko irakasle eta ikasleak, bai egungoak eta baita garai batekoak ere... Gogoan izan baitzituzten esaterako, herrian euskara ikasten hasi ziren lehen ikasle haiek Mitxausean elkartzeko garaiak.



AMAITZEAR DA LARUNBLAI EKIMENEAN IZEN EMATEKO EPEA

Azken urteotako arrakasta ikusita, aurten Nafarroako bederatzi udalerritako Euskara Zerbitzuek *Larunblai* ekimena jarri dute martxan. Gurean, Lekunberri eta Larraungo Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko ikasleentzat eskainiko da bi larunbatean behin arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitarte.

Ekimen honen helburua ikastetxetik kanpo haurrek euren arteko harremanak euskaraz izan ditzaten sustatzea da. Bi hezitzailek gidatuta jarduera ezberdinak eginen dituzte larunbat arratsaldeetan Lekunberriko Plazaola kiroldegian. Dagoeneko hamahiru gaztetxok eman dute izena, baina oraindik ere nahiz izanez gero bertan izen emateko garaiz zabilta!

Izen-ematea Euskara Zerbitzuan: 948 504 400.



URRIAREN 20AN AMAITUKO DA NEGUKO IKASTAROETAN IZEN EMATEKO EPEA

Ikasturte berria hasi dugu dagoeneko eta aurtengo neguan aisialdirako ikastaro eskaintza zabala eskainiko dute Mitxausenea Kultur Etxean. Egur taila ikastaroa izanen da larunbatero (09:00-11:00). Ostiraletan, helduentzako eta haurrentzako birziklatze ikastaroa eskainiko dute (19:00-21:00), birziklatutako materialekin mota guztietako dekorazio teknikak ikasteko. Iaz bezala, dantza tailerra ere eskainiko da ostiraletan (ordutegia izen-emateen arabera zehaztuko da). Eta Internet erabiltzeko oinarritzko ezagutzak barneratzeko aukera ere izanen da (eguna eta ordutegia zehazteke). Urriaren 20an amaituko da horietan guztietan izen emateko epea 948 60 45 82 telefono zenbakira deituta (Mitxausenea).

Bestalde, aurtien ere Teresa Martínez psikologoak Mugimendu adierazgarria eta norberaren lana izeneko ikastaroa eskainiko du asteartero (15:00-16:30) Mitxausenean. Bioenergetika, Río Abierto, meditazioa, erlaxazioa, eneagrama eta beste hainbat teknikaren bitartez, bizitasuna, poza eta norberaren esentzia bilatzeko gunea izanen da. Informazio gehiago: 651 678 339 edo info@teresamartinez.net



ARRIBEKO ELIZA GORAINO BETE ZUEN ET INCARNATUS ORKESTRAK

Koro Irazokik sorginei buruz eskainitako hitzaldiarekin amaitutzat eman dute *Azken Muga* proiektuaren II. edizioa. Zaratetxan sorginkeriarri buruzko erakusketa egon zen ikusgai hilabete osoan zehar eta Irazokik Araitzen bertan izandako hainbat kasu aipatu zituen. Irailaren 16an bertso eta dantza jaialdiak izan ziren Altzon. Inguruxoak hainbat herritan dituen ezaugarriak buruz aritu ziren. Mikel Lasarte etxarriarra aritu zen irakasle lanetan eta Basakaitz taldeko hainbat kidek Iribasko ingurutxoak nola dantzatzen duten erakutsi zieten bertaratutakoei. Bazkalondoan Maialen Lujanbio, Julio Soto, Amets Arzalluz, Alaia Martin eta Iñigo Gorostartzurekin pasa zuten arratsaldea Altzoko basilizian. Bestalde, Et Incarnatus orkestrak ere Euskal Herriko abeslari ezagunenetako batzuekin kontzertu ederra eskaini zuen Arribeko elizan. Alex Sardui, Petti, Izaro, Gorka Sarriegi eta Niko Etxart aritu ziren kantuan eta entzuleez goraino bete zen eliza.



Arg: Klaus Armbruster.



Arg: Klaus Armbruster.

Sols el poble salva el poble

Ondorengo lerroetan Katalunian gartzatzen ari den prozesuaren ikuspuntu ezberdin bat azaldu nahi dizuet. Mezua ongi ulertzeko diskurtsoa hiru puntutan banatu dut. Hasi aurretik, esan beharra daukat ikuspuntu honetan ez dudala inondik inora Kataluniako eliteen edo burgesiarren prozesua babestuko -nire ustez Puigdemontek edo Ada Colauk ez baitute herri katalana ordezkatzeko, herria ordezkatzeko duen protagonista herria bera baino ez da-. Bestalde, jakin beharra dugu Kataluniako prozesua ez dela independentziara mugatzen, baizik eta, aukeraz beteriko leihotako bat irekita ikusten dugula mugimendu soziala eta herri mugimendua sustatzeko.

Lehenengo, Kataluniako mugimendu sozialaren aktibazioa da. Eztabaida honetan, independentziaren gain beste zeregin batzuk jarri behar dira mahai gainean: esaterako, herri mugimendua aitortzea aktore politiko legitimo bezala erabakiak hartzerako orduan, non, etorkizuneko herrialdean eragina izango duen. Esate baterako, esparru hauetan izango luke eragina: zerbitzu publikoetan, garraio bideetan, etxebizitzetan, lanean, ingurumenean, energian... Hitz gutxitan, herri subiranotasunaren aldarrikapena da.

Bigarrena, estatu espainiarrek martxan daukan zapalkuntza estrategia bere aparatuz legalaz baliatuz herri eta instituzio katalanen kontra dagoela jabetzea da. Gobernu zentralak martxan dituen politikak ikusita argi eta garbi uzten du ez dakielako nola kudeatu egoera, ez hori



bakarrik, bere jarrera erreakzionarioena erakusten du. Hortaz, herria konturatu behar da demokrazia ez dela inoiz iritsi, honenbestez, herri mugimenduaren esku dagoela demokrazia defendatzea. Hori bai, eredu parlamentarioa alde batera utziz eta batzar popularraren eta demokrazia zuzenaren aldeko apustua eginez.

Hirugarrenak, 1978ko erregimenaren hausturaren ideia abiapuntutzat hartzen du. Honen helburua estatu modelo faxista hau ahultzea saiatzea da, horrela, estatu espainoleko gainontzeko herrialdeetako herri mugimenduak piztuz. Gobernuaren gainontzeko komunitateek desobediencia bidea aukeratzeko beldur da.

Espainia utzi nahi izatea ulergarria eta legitimoa izan daiteke, baina ez dezatela Espainia bezalako beste

estatu bat sortu. Horregatik, langile klasearen eta kapitalismoaren arteko arazoak ere konpondu behar dira lirateke, horretarako lehen aipatutako pausoak aurrera eramanda marko politiko berriak sortu ditzakegu klaseko sindikatuetatik, auzoetako/etxebizitzetako batzarretatik, antolakuntza ekologistetatik, ikasle antolakuntzetatik... Gure papera herri mugimenduetan parte hartzea da, errespetua, elkartasuna, berdintasuna eta askatasuna abiapuntutzat edukitzen beti.

Badakigu lan handia dagoela aurretik, baina borrokatzea erabakitzen badugu, sinistu behar dugu iraultza soziala posible dela eta hori bakarrik gertatuko dela arazoei aurre egiten badiegu herri bezala, herria sortuz.

Visca el poder popular y la soberanía del poble!

Agur eta milesker Joxe Ramon

Gaur zuri idatziko dizut azken gutun hau Joxe Ramon, zuri zuzenean nahiz eta jende gehiagok irakurriko duen. Bueno, ez dakit zuzenean iritsiko zaizun, ez dakit irakurriko duzun edo garrantzizkoa ote zaizun. Baina niri bai, azken hitz zuzen batzuk egin nahi dizkizudalako, zurekin bizitakoak eskertzeko. Zure gaixotasunaren prozesuan, ez nion ia nire burutik pasatzen utzi joan zintezkeenaren aukerari, hain gaztea, umoretsua... Agian nire burua eta nire bihotza babesteko ez nion heriotzaren aukerari aterik ireki nahi, baina oraingoan, beste batzuetan bezala, atzeko atetik etorri da heriotza.

Eta gutxi landuta dugun gaia dugu oraindik heriotzarena, dut behintzat. Baina ekidin ezin den gaia da, beraz, aurrera lanketarekin, orain ere zure ekarpena egingo duzu, beti bezala, beti zer edo zer jatorra emateko prest. Esaten dute gauza gogorak eta zailak ahazteko prestatuta dagoela gure burmuina, bereziki oroitzapen onekin gelditzen garela, bestela ezinezkoa izango zela gauza batzuk berrituz egitea, haurrak erditzea, kirol batzuk... Joaten zaretenez gauza onak oroitzeko joera ere izaten da, agian txarrak ahazten ditugulako edo agian ohartzeko garelako askotan zailtasunak azpimarratzen ditugun arren, edertasunak eta distirak handiagoak zirela.

Niretzat zure kasuan bai behintzat. Ezin esan asko ezagutzen zintudala, baina betidanik ezagunak izan gara. Pertsona berezia izan zara beti, baina azken urteetan ha-



rrituta eta goxatuta ninduzun zure berezitasunaren magiarekin. Topatzen ginenean, benetan gustura egoten nintzen zurekin tar-tarrea, zure jarrera ikaragarri fina iruditzen zitzaidan, zure entzuteko gaitasuna, laguntzeko jarrera, alaitasunerako nahia... Ez nizun inolako intentzio txarrik sentitu sekula, barne garbitasun berezi bat nabaritzen nizun beti. Nire irribarrean nabaritzen zenuela uste dut.

Minak ere izango zenituela iruditzen zait, baina ez zenuen nirekin behintzat horien inguruan ia hitz egiten. Jatortasuna eman nahi izaten zenuen beti, zela zure argazkietan, zela zure urtebetetzeetako deietan, festetarako gonbitetan edo lekuetako ongi etorrietan, beti baikor, jatortasuna emateko prest

eta jasotzeko eskerrak. Zure partitzeak kanpoan harrapatu ninduen eta ez nintzen elizkizunetara joan, ez naiz eliztarra gainera. Baina agurtu eta eskertu nahi dizut zure izana. Noski, horren faltan pena pixka bat gelditzen zait, gauza gehiago ez aprobetxatu izana zurekin... Hori ere erakutsi didazunez, zuk nahiko zenukeen bezala, geratzen garenak bizitzaz gozatzen jarraituko dugu, horretarako fin lanean bakoitza bere modura.

Ulertu nahi dut denak hilko garelako eta hori errespetatu nahi dut. Ez dago gure esku, beraz, zergatik borrokatu horrekin? Bizitzari errespetua diodan bezala, heriotzari ere. Misterioak misterio, benetako emozioei leku, zuk egiten zenuen bezala. Eman eskuminak anaia Luis Mariri, nik zuen etxekoei emango dizkiet hemen, zure faltaren penaz gain, zu ezagutu izanaren harrotasunarekin bizitzen jarraituko dugulako. Ez dagoelako eredugarri izan nahi gabe eredugarria dena baino eredu hobeagorik. Beti arte Joxe Ramon!

Doinua: Loriai udan ihintza bezala

*Flash kolpe batez gorde nahiean
eman diguzun guztia
kamerarekin sortzen zenuen
momentu jator askia
Oroitzapenez bete zenuen
gure bihotzen saskia
gordeko dugu zuk utzitako
jatortasun argazkia*

Jerusalemdik ekarritako jatorrizko erlikiak San Migelen?

Urte eta erdiko ikerketa eta berritze lanen ondotik, San Migel aingerua urte luzez herriz herri ibiltzeko prest dago. Mikel Garcíandia kapilauarekin izan gara. Etxarri Aranazkoa da bera eta bederatzi urte daramatza San Migelen.



Mikel Garcíandia eta Pedro Saralegi zaharberritutako San Migel aingeruarekin. Arg: Labrit.

Berritze lanak joan den ekainean egin ziren, baina atzetik ikerketa lan bat egon da, orain dela urte eta erdi hasi zena. Duela 260 urte zaharberritu zuten azkenekoz eta 22 aldiz urreztatua izan da. Urreztatze prozesu horrek berak zilarrezko geruza kaltetu egin du eta egitura ere kili-kolo zegoen. Nafarroako Gobernuako Ondare departamentuarekin batera, egin beharreko zaharberritze lanak aprobetxatuz aingerua irekitzea erabaki zuten.

San Migelen berezko egitura zuzeneko omen da, Erdi Arokoa eta guk ikusten duguna XIX. mendean babesteko jarri zizkioten zilarrezko pieza batzuk dira. Hainbat aldiz lapurtu dute aingerua historian zehar eta erorketak ere jasan ditu. 1756an egurrezko egitura ondatzen ari zela ikusita Juan Lorenzo Irigoien apezpikuak zilarrezko geruza hori jartzea erabaki zuen.

Mikel: "Nafarroako Gobernuako adi-tuek esan ziguten metalaren benetako egoera zein zen ikusteko aprobetxatu behar genuela. Eta guk barruko egurrezko egitura ere aztertu dugu. Eskaner baten bitartez ikusi dugu egurrak bazituela zilarrezko iltze txiki pila bat, polikromia ere bazuen lepoan, eskuan eta oinetan eta horrela aingeruak Erdi Aroan zuen itxura ezagutzeko aukera izan dugu. Oso interesgarria da ikusita aingeruak mendeetan zehar izan duen bilakaera. Nahiko ezberdina zen orduan".

Lehenik eskaneatu eta argazkiak atera zizkioten. Pieza berriak 3Dko moldeekin egin zituzten. Horrela lor-

tu dute aingeruari orain dela 260 urte zuen itxura ematea. Zaharberritze lan horiez gain aingeruaren barruko egur hori ere aztertu egin dute. Mikel: *"Santutegi honek 1099an izugarrizko bultzada izan zuen, Jerusalemdik Ramiro printzea etorri zenean. Ramirok Jerusalemdik ekarritako Jesu Kristoren gurutzeko puxka batzuk oparitu zituztion santutegi honi. Nafarroan jatorrizko gurutzearen puxka batzuk genituela jakin zenean, izugarrizko debozioa sortu zen eta 1100. urtea kofradia sortu zuten, 40.000 kiderekin".*

Garai hartan nabe sendoago eta ederrago bat egin zuten eta burnizko atek jarri zituzten santutegiaren barruan zegoen erromesen trafikoa kontrolatzeko. Gainera, San Migelen kaperazaharreen, sartzeko eta irteteko atek ireki zituzten. Mikelek azaldutakoaren arabera, ezaugarri hori oso arraroa omen da kristautasunean, eta antza santutegira etor-tzen ziren erromes guzti haiek elizari hiru buelta eman eta gero kaperako ate batetik sartu eta bestetik aterako ziren.

Kateen ohiturari dagokionez, Mikelen ustez, Sancho VII.ak 1212. urtean Navas de Tolosatik kateak ekarri zituenean Goñiko Teodosioren kondairarekin eta kateei bueltak emateko ohitura orduan sortu zen.

Mikel: *"Jesukristok bizkar gainean eraman zuen gurutzetik munduan kontserbatzen diren benetazko erlikiak altzifre gorritzakoak dira. Eta orain jakin dugu gurea ere hala dela eta hori oso pozgarria da. Fedea ez dago hor, baina badakigu badagoela seriotasun histo-*



Itxura hau zuen aingeruak zaharberritu aurretik. Arg: J.A. Garaikoetxea.



1.100. urtean San Migel Kofradia sortu ondoren, hainbat horma eta zutabe erakini zituzten santutegian. Arg: J.A. Garaikoetxea.

riko bat eta horrek indarra ematen dio santutegiari. Erlikia horiek XIX. mendera arte marfilezko kutxatxo batean gordeta egon dira hemen eta orain marfilezko kutxa hori ikertzen gabiltza, oraingoz esan digute Egipton XI. mendean egina dela".

Aingeruaren barruan testuak ere aurkitu dituzte, otoiitzekin eta konponketa ezberdinetan parte hartu zuten pertsonen izenekin. Mikel:

"Papertxoak ez hondatzeko bere garaian Iruñeko joyero batek kapsula batean sartu zituen. Kontutan hartu behar da aingerua garai batean txikiagoa zela eta gurutzea berriz handiagoa. Aingerua bandera gisa erabiltzen zuten nafarrek euren batalletan eta San Miguel zaldi baten gainean eramanen zuten. Aingerua barrutik hutsuena duenez hor kapsula hori sartzeko aprobeztatu zuten".

●● Mikel Garciandia kapilaua

Aurkikuntza berriak

San Migel santutegia noizkoa da?

Erdi Arokoa baino antzinagokoa da. Hor dugun aldea presbiterioan lurperaturik zegoen eta XVIII. edo XIX. mendekoa da, abside bat ere badu eta horrek ere gutxienez XIX. mendera garamatza. Gainera, kristautasuneko lehendabiziko elizek, nartex izeneko espazio bat zuten mendebaldean. Nartexa garai hartan, oraindik kristauak ez ziren horiek, paganoak, jentilak zirenak, euskaldunak baina ez kristauak, horiek bataiorako prestatu nahi zutenean aintzinako elizetan espazio bat zegoen egokituta beraiek katekesia jaso zezaten. San Migelen oraindik ere nartexa kontsebatzen dugu. Hirietan lehenago desagertu ziren, baina mendialdean eta leku babestetan beranduago kristautu ziren, azken gune paganoak edo jentilak VII. edo VIII. mendekoak izan ziren.

Aurtengo udan industaketa arkeologikoak egiten jarraitu duzue...

Bai. Aurten hezurdura gehiago aurkitzeaz gain horma interesgarriak topatu dituzte eta galdera asko sortu dira, zein eraikin da hor lurperatua dagoena? Gaztelua? Harresiak?... Txanponak ere agertu dira, nafarrak eta Teobaldo erregearenak, baita Ingalaterrako Printze Beltza zena-ren txanpon bat ere. Printze hura

hemendik pasa zen bere garaian, Urdiain erre zuen eta hainbat ekintza egin zituen. Arma asko aurkitu dituzte. Nafarroako muga izanik, XIII. mendea oso gogorra izan zen hemen.

Beraz, aingerua berriturik eta prest dago?

Bai, potoloago gelditu da eta Jesus Mari Sotil pixka bat haserre daukat gehiago pisatzen duelako. [Kar, kar...].

Pedro, San Migeleko arduradun berria

Pedro Saralegi lekunberriarrak bi urte daromatza San Migelen lanean. Astelehenetik ostiralera bera da santutegiko arduraduna. Mantentze lanez gain, etortzen diren bisitariei harrera egin eta bisita gidatuak ere eskaintzen dizkie. Astez bisitari asko izaten ditu santutegiak, %70 bertakoak izaten dira, nafarrak eta gipuzkoarrak gehien bat, baina madrildarrak, kataluniarrak, eta atzerritar ugari ere iristen dira. Pedro: "Abuztuan jende gainezka egoten da eta orain, ikasturtean zehar, eskoletatik etortzen hasten dira". Zortzi lagunetik gorako bisita gidatuak eskaintzen ditu aurrez eskatuz gero. Pedro: "Ez nuen inoiz pentsatu izan, hemen lan egingo nuenik. Orain bi urte langabezian negoen eta kasualitatez Lekunberriko apaizak proposamena egin zidan. Mikel eta beste apaizek bisitak nola egiten zuten entzunez ikasi dut, pixkanaka, eta oso gustora nabil".



TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

GARAJAZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMAZIOA ZALTEZ!!!
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika inglesa 948 504 450
lengua kimika 648253523
euskera historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

ITURRASKARRI



Bide zaharren sarea ezagutuz

Hamabi urte dira Iturraskarri proiektua martxan jarri zela turismoa sustatu eta bertako ondarea, kultura eta natura babesteko. Urte guzti hauetan, garbitokiak, iturriak, askak, konjurutokiak, ferratokiak, korrikalekuak eta berdeguneak berritu dituzte eta garai bateko bide sareak berreskuratu dituzte. Lan horiek Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik bideratu dituzte eta mankomunitatea osatzen duten udalen, herritarren eta erakundeen laguntzarekin egin dituzte. Aurten, hamabigarren urteurrena aprobetxatuz, orain arte egindakoa gizartean ezagutzera emateko ahalegin berezia egiten dabilta. Joan den hilabetean, hainbat txango egin zituzten, bai ikastetxeetako ikasleekin eta baita eskualde bakoitzeko herritarrekin ere.

Araitzen esaterako, "Haritza eta mendia" proiektuarekin bat eginez bailarako herrien artean dauden bide zaharrak berreskuratu dituzte, garbitu eta markatu. Eta irailaren 10ean Araizko ibilia ospatu zuten herritarrekin batera bide sare hori ezagutzera emateko. Bestetik, Larraunen ere Ondare taldeko kideekin auzolanean bertako bideak egokitu ondoren, txangoa antolatu zuten.

Egindako lana etorkizunean mantendu ahal izateko ordea, beharrezkoak dituzte proiektua babesteko duen jendea aurkitzea. Horretarako, kanpaina bat jarri berri dute martxan.

ARRIBE

Liburu Lagun txokoak ordutegi berria du

9:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Araizko udaletxeko eraikinean dagoen Liburu Lagun gunea. Bazkide diren L.H.ko seigarren mailatik gorako ikasleek txokoa helduen presentziarik gabe erabiltzeko aukera izanen dute. Hilean behin 17:00etatik 19:00etara txikienak zaintzeko prest dauden boluntarioekin poltsa bat sortu nahi dute zerbitzu hori eskaintzeko. Animatu!

LEKUNBERRI

Aurrekontu parte-hartzaileak

lazko aurrekontu parte-hartzaileen arrakasta ikusita, aurten ere Lekunberriko Udalak herritarrei herrian ikusten dituzten beharrezko inbertsioak proposatzeko aukera eman die eta joan den irailaren 8an egin zuten bozka kontaketa. Pilotalekuan hobekuntzak egitea (sarreako teilatu txikia, berogailua etab.), pilotalekuko haur parkea handitzea, eszenatoki berria eta futbol zelaiko harmailetako eserlekuak eta markatzaile digitala. Horiek izan ziren aurkeztutako proiektuak. Larraungo Pilota Elkartek egindako eskaerak jaso zituen puntu gehien, 57.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

EUSKAL HERRIA



Hasi da bederatzigarren Bertsolari Txapelketa Nagusia

Joan den irailaren 23an hasi zen lau urtetik behin egiten den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Nafarroako txapela irabazi eta gero aurten berriro ere bertan da Julio Soto gorritiarra. Leitzan jokatu zen finalurrekoan aritu zen eta laugarren sailkatu zen, Oihana Iguaran (714 puntu), Agin Laburu (686 p) eta Iñaki Apalategiren (685 p) atzetik. Unai Agirrek 674,5 puntu eskuratu zituen eta Oihana Bartrak 619,5. Oraindik beste hiru final laurden gelditzen dira jokatzeko, baina oraingoz hauek dira finalurrekoetan arituko direnetako batzuk: Alaia Martin, Jon Martin, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Sustrai Colina eta Maialen Lujanbio.

Azken hiru txapelketetan bezala, aurten ere finala Barakaldoko BECen jokatuko da abenduaren 17an. Guztira 14 saio izanen dira eta 43 bertsolarik parte hartuko dute, 2013ko Txapelketa Nagusiko finalistak eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatutakoak. Horietatik 36 pasako dira final laurdenetara eta bertan erabakiko dira final laurdena jokatuko duten 24 bertsolariak.

Aurten lehen aldiz, saioa zazpi lurraldeetan jokatuko dira. Hona hemen hilabete honetan izanen diren saioak:

- Urriak 7, 17:00 (Zallako Mimetiz pilotalekuan): Eneko Abasolo "Abarkas", Jone Uria, Miren Amuriza, Odei Barroso, Oihane Perea eta Onintza Enbeita.
- Urriak 8, 17:00 (Zumaiako Aitzuri pilotalekuan): Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Asier Otamendi, Ibon Ajuriagojeaskoa, Miren Artetxe, Nahikari Gabilondo eta Nerea Ibarzabal.
- Urriak 14, 17:00 (Tolosako Beotibar pilotalekuan): Beñat Lizaso, Eneko Lazkoz, Etxahun Lekue, Jon Maia, Maddalen Arzallus eta Xabat Gallettebeitia.
- Urriak 28, 17:00 (Bastidako udal kiroldegian): Igor Elortza, Sustrai Colina, Segurako irabazlea eta puntuazioz 1.a, 8.a eta 9.a.

NAFARROA

Aitor Irastortzak BERTSOKABI- Eugenio Arraiza Sariketan parte hartuko du

Nafarroako Bertsokabi Elkarteak BERTSOKABI – Eugenio Arraiza Sariketa antolatu du lehen aldiz. Iaz erabaki zuen elkarrekin Xalto sariketa bertan behera uztea eta sariketa berri honekin bertsolari gazteei jendarean aritzeko aukera eman eta Iruñerria bertsokabizetako helburua du.

16 eta 30 urte arteko 18 bertsolari gaztek parte hartuko dute bertan, tartean izanen da Larraungo bertsokabi eskolako Aitor Irastortza. Urriaren 5ean hasiko da sariketa eta hilaren 26an izanen da azken saioa. Bertsolariak bikoteko ariko dira. Ikusi saioen egutegia Agendan (31. orr).



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Iruztun

SAN MIGUEL
Taberna-jatetxea
Arribe
948 51 31 34

IRIBAS

Festarik festa
jarraitzen dugu

Azken hilabete honetan, Iribasen, Atallun, Allin, Intzan eta Etxarrin izan dira jaiak. Allin orain dela urte gutxi berreskuratu zituzten festak eta aurtengo egun bateko festa eguna ospatu zuten. Horra hor plaza horietan bildutako irudiak.

ETXARRI



INTZA

ATALLU



HELDUENTZAKO INGELESA

BEHAR DUZUNA LORTU!

INISHOUSE



INISHOUSE ENGLISH CENTRE LEKUNBERRI
 A1etik C1erako mailak
 Azterketetarako prestakuntza
 Cambridge, EOI, TOEFL
 Enpresentzako klase praktiko eta zehatzak
 Aurrez aurreko eta *online* klaseak

Aralar 45, Lekunberri · 948504164 · www.inishouse.com

Araitzen ekoizten diren produktuen artisau azoka

lazko martxoan Araizko Udalak bailarako orainari eta etorkizunari buruz hausnarketa egiteko deialdia luzatu zien bertako ekoizle, tabernari, enpresari, agroturismoei eta herritarrei oro har. Bertan ateratako ideiak aurrera eramateko Araitzen lan eta bizi lan taldea sortu zuten, batzordeko kideekin izan gara. Bertako ekonomia, ondare historikoa, eta elkarlana bultzatzea dute helburu. Urriaren azken igandean bailaran ekoizten dena ezagutzera emateko azoka egingo dute.

Zertan da proiektua? Zeintzuk izan dira azken hilabeteetan emandako aurrerapausuak?

Aurtengo lan ildoak, bertako ekonomia bultzatze aldera, elikadura burujabetza ardatz harturik lan egitea da, horretarako, baserria eta bertan ekoizten diren produktuak zaindu eta bultzatu nahi dugu. Urrian zehar hitzaldi ezberdinak egingo ditugu eta azkeneko igandean peria. Bertako produktuak, dendak eta ditugun baliabideak indartzeko bailarako sor marka bat sortu dugu, datorren hilabeteetan dendak eta ekoizleek erabiltzen hastea gustatuko litzaikeena, *Araizko zaporeak*.

Bertako ondarea berreskuratzeko hainbat ekintza egin dituzue dagoeneko...

Malloetan belarra jaisteko erabiltzen zen kableetako bat berreskuratu dugu. Ekainean Intzako Oxenea baserrikoa berreskuratu genuen eta egun zoragarria izan zen. Garai haietan lan egin zutenak erakutsi ahal izan ziguten nola lan egiten zu-

"Bertako produktuak, dendak eta ditugun baliabideak indartzeko bailarako sor-marka bat sortu dugu"

ten. Egun ahaztezina izan zen. Orain Gaintzatik ere zetorren kable luzeetako bat berreskuratu nahiko genuke eta Araizko Udalaren laguntzarekin horretan gabilta.

Bailarako Haritz Ederrenaren argazki lehiaketa ere antolatu zenuten...

Bai. Herriz herriko bide zaharrak ere garbi eta txukun mantendu nahi ditugu eta horretarako Iturraskarrik eginiko lanari bultzada eman nahi izan diogu, Haritzaren lehen argazki lehiaketa antolatuz. Gustatuko litzaike urtero ibilbide horiek ezagutzera emateko egun bat antolatzea. Aurtengo lehiaketako irabazlea Azkarateko Ainhitze Alberdi izan zen.

Jendea batzordeko bileretara hurbiltzen ari al da?

Gogoetarako erabili ziren bi egunetan 25-30 lagun bildu ginen eta gero, 12 lagunek eman genuen pausoa. 15 egunetik behin, asteazketan, arratsaldeko zazpitan elkartzen gara Arribeko udaletxean. Jendea animatu nahi genuke parte-hartzera, geroz eta jende gehiago ideia gehiago eta asmo gehiago, denen ideiak jasotzea aberasgarria da.

Urriko azken igandean azoka bat eginen duzue... Noiz eta non izango da?

Lekua eguraldiaren arabera erabakiko dugu, baina Arribeko plazan edo Ataloko plazan izatea aurreikusten da. Gure nahia bertako baserritarrak berain produktuekin plazara ateratzea da, azak, porruak, arrautzak,



Araizko zaporeak sor-markarentzako Juan Gorriti eskultoreak diseinatutako logoa.
Arg: Araitzen lan eta bizi.

yogurtak, pastak, mermeladak, artisauek egiten dituzten lanak... Bertan talogileak egongo dira eta trikitilariak. Bailarako egun polit bat izanen da eta hemen ekoizten diren produktuak erakutsiko dira, jakiteko zein baserrietan eta etxetan aurkitu ditzakegun kalitatezko produktu osasungarriak.

Zein da azoka horren helburua?

Bertako produktuak goraipatzea, bertako dendetan, bertako produktuak, kontsumitzearen garrantziaz jabetuaraztea.

Zer nolako garrantzia du zuentzat bailaran eta eskualdean bizi garenok bertako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeak?

Bertako jendeari lana ematen diozula lako tabernari, dendari, ekoizleari... eta bertako baserritarrak zaintzen dituzulako, hemengo zelaiak eta herriak bizirik, garbi eta txukun mantentzeko hain beharrezkoak diren baserritarrak. Eta ingurumenarekin errespetuan kalitatezko produktuak ekoizten jarraitu dezaten bultzatzeko. Bertatik bertara eta sasoiari sasoiakoa kontsumitzeak, bizi kalitatea hobez dezakeela uste dugu. Tokikoa eta sasoi bakoitzean hazitakoa bertako biztanleriara egokituagoa delako eta bestalde, garraioen gas isuriak murriztuko ditugulako, gure ama-lurrari mesede eginez.

Kontzientziario hori erraza ez den arren, azkenaldian badira gurera etorri eta



Urriaren amaieran eginen den artisau azokan, bertan ekoizten diren produktuak jarriko dituzte salgai. Arg: Orixenea baserria.

bertan lan egiteko saiakera egiten dabilzanak. Esaterako, ale honetan bertan elkarriketatuta ditugun Itziar eta Aratz (Lezaetako ogia). Beraz, bada esperantza?

Bai, herriak bizirik mantentzeko, beharrezkoa da jendea herrietara bizitzera etortzea. Bikote horrek apustu ausarta egin du, kalitatezko ogia egitera etorri dira. Azkenaldia horretan baditugu, gazteak gure herrietara bertan lan eta bizitzeko asmotan etorriak, Intzako Oxenekoak, Antsonegoikoa baserrikoak... Baita bertako gazteak ere, gurasoen lanari jarraipena emateko apustua egin dutenak. Eskertzekoa da benetan gazte hauek egiten ari diren apustua!

“Bertako produktuak goraipatzea eta bertakoa kontsumitzearen garrantziaz jabetuaraztea da azokaren helburua”



Lasterketa arrakastatsua

Lehenengoa eta arrakastatsua izan da irailaren lehen asteburuan izan zen Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala. 129 korrikalarik parte hartu zuten 3,85 kilometroko lasterketan. Orain dela bi ale, Iñaki Alvarez antolatzaileetako batek azaltzen zigun moduan, ibilbide motza izan arren, oso gogorra da lasterketak duen desnibelagatik. %69ko maldak igo behar izan zituzten.

Proba nagusian, Aitor Osa izan zen lehena 35 minutu eta 48 segundorekin eta atzetik iritsi ziren tontorrera, Xabier Macías (00:37:44) eta Mikel Beunza (00:37:57). Emakumezkoetan ere alde gutxirekin sailkatu ziren lehen hirurak, Maider Fraile (00:46:09), Izaskun Zubizarreta (00:49:29) eta M^a Cruz Aragón (00:49:50).

Araxes Herri Kirol Klubak, Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundearekin batera antolatutako proba izan zen eta bertan erabaki ziren ere Kilometro Bertikaleko Nafarroako txapelkunak. Emakumezkoen senior mailan Rebeca Artiedarentzat izan zen garaipena eta Maider Frailerentzat beterranoen mailan. Gizonezkoetan, Mikel Beunza izan zen Nafarroako Txapelketako txapelkuna senior kategorian eta Tedy Garzón beterranoen artean. Taldekako sailkapenari dagokionez, Txurregirentzat izan zen titulua gizonezkoetan eta Noingo taldearentzat emakumezkoetan.

Goizeko hamarretan hasi ziren korrikalariak Intzako plazatik irteten eta bi ordu baino gutxiago behar izan zuen azkenak Ttutturreko tontorrera igotzeko. Eskualdean ere izan ziren lasterketan parte hartzera auzartu zirenak.

Horra hor bertakoek lortutako denborak:

Isaac Alvarez (Lekunberri)	00:45:04
Xabier Azpirotz (Astitz)	00:47:59
Alfontso Etxarri (Arruiz)	00:48:44
Luis Mari Larreta (Aldatz)	00:50:18
Ander Zulet (Lekunberri)	00:50:44
Iñigo Lasarte (Lekunberri)	00:51:00
Iñigo Garaioa (Lekunberri)	00:51:37
Jose Mari Huarte (Betelu)	00:51:48
Joanes Rekalde (Betelu)	00:52:16
Ivan Gonzalez (Lekunberri)	00:53:25
Imanol Jaka (Etxarri)	00:55:03
Xabier Igoa (Aldatz)	00:56:03
Oihan Igoa (Aldatz)	01:01:43



Isaac Alvarezek lortu zuen eskualdeko denborarik onena. Arg: Labrit.



Ander Zulet tontorrera iristen ari zen momentua. Arg: Labrit.



Oihan Igoa aldaztarra pozik behin gailurrera igota. Arg: Labrit.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEXO

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

JATETXEA

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



Inoiz baino korrikalari gehiago Plazaolako Maratoi Erdian

Plazaola Natur Bideko Maratoia eta Maratoi Erdia jokatu zen joan den irailean. Lekunberritik, goizeko bederatzietan irten ziren maratoia egin zuten korrikalariak eta Leitzaan zuten irteera puntua maratoi erdia egin zutenek. Helmuga berdina, Andoaingo Goikoplaza. 42 kilometroko lasterketan 98 korrikalarik lortu zuten helmugaratzea. Jon Aizpurua izan zen azkarrena (02:48:50), Iván Piñón bigarren (02:48:56) eta Sergio Uzku-dun hirugarren (02:51:33). Emakumezkoetan, Natacha López (03:05:55), Amaia Ochoa de Alda (03:10:24) eta Eva Esnaola (03:12:06) izan ziren lehen hiru sailkatuak.

Maratoi erdian berriz, 402 korrikalari iritsi ziren Andoainera. Lehena Ion Sola izan zen (01:28:08) eta atzetik sartu ziren Ibai Alba (01:28:13) eta David Palomo (01:30:10). Emakumezkoen sailkapena honela gelditu zen Amaia Iza txapeldun (01:51:26) eta atzetik Begoña Julián (01:51:33) eta Ainhoa Polo (1:56:10).



Mendizaleak sasoi betean

Ikasturte hasiera mugitua izan dute eskualdeko mendizaleek. Hilaren 23an Ttutturre Kirol Elkarteko kideak Garmo Negron izan ziren, Oskako pirinioetan, 20 lagun inguru izan ziren eta asteburu ederra pasa zuten. Bestalde, Araxes Klubeko mendizaleek urriaren 21 ean Pagotan buzoia jartzeko asmoa dute. Goizeko bederatzietan irtengo dira Arribeko plazatik.



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXEGO PIZZAK.
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



Bitaminak eta mineralak

Kaixo denoi, Uda ongi pasa duzelakoan... ni hemen naiz berriz bueltan, zuei aholku berri batzuk ematera. Oraingoan zerbait ezberdina izango da. Ni nutrizionista izateaz gain, belar denda batean egiten dut lan eta orain jendea dietan jartzeaz gain, beste gauza batzuetaz ere arduratzen da, batez ere defentsak nola indartu, katarroak nola ekidin, gripea... Beraz, osasuntsu eta indartsu egoteko bitamina, mineral eta beste sustantzia batzuk aurkeztuko dizkizuet. Hona hemen:

Propoleoa: erleek erabiltzen duten gaitzen kontrako botika edo antiseptikoa da. Bere propietate garrantzitsuen artean, defentsak indartzen ditu batez ere, gaitzei kontra egiteko, modu naturalean. Antibiotiko natural hau oso eraginkorra da. Normalean tantatan hartzen da, estraktu puruan.

Jalea Real: defentsak indartzeaz gain, beste onura batzuk ere baditu; energia ematen digu, nerbio-sistema estimulatzen digu, odol zirkulazioa hobetzen du... Normalean modu freskoan edo anpoilatan hartzen da.

*Hala ere, aipatu dizkizuedan bi sustantzia hauek eztiandaude, beraz, egunero ezti pixka bat jatea onuragarria izan daiteke, beti ere dosi egokian hartuta.

Ekinazea: Hau oso landare garrantzitsua da. Antibiotiko naturala da eta defentsak indartzen ditu. Birus

eta bakterio ezberdinak erasotzen ditu. Katarro, gripe edo sinusitiaren kontra oso erabilgarria.

Hauek dira fitoterapiaren gehien erabiltzen direnak. Ondoren bitamina garrantzitsuenak azalduko dizkizuet:

C bitamina: hain ezaguna dugun bitamina honek ere inmunitate sistema indartzen laguntzen digu eta oso antioxidatzailea da. Bitamina hau fruta eta barazki askotan aurki dezakegu, batez ere, kiwian, marrubietan, limoian, laranja, piper berdean...

A bitamina: hau ere oso antioxi-

datzailea da eta asko laguntzen du biriketako arazoetan (katarroa da goenean jada). Azenarioan, kalabazan, tomatean... aurki dezakegu.

Zinka, mineral bat da, baina oso garrantzitsua baita ere. Elikagai hauetan aurki dezakegu: txokolate puruan (%100), sandian, zenbait arrai eta haragietan, kalabaza pipetan, sesamoan, espinaketan, onddoetan...

Beraz, badakizue zuen inmunitate sistema eta defentsak indartu udazken honetan, katarro, gripe eta beste gaixotasun batzuk ekiditeko.

Hurrengoan gehiago...



Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia
Lekunberrin ateratakoa da. Ezkerre-
tik eskuinera:

Nieves Zubillaga, Mayayo Albeniz,
Tito Gabari, Ventura Martinikorena, Ma
José Arregi, Ma Jesús López, Luisa Ruiz,
Lourdes Mitxaus, Ma Luisa Medina,
Emilia Guruzeaga, Ma Dolores López,
José Zubillaga, Asun Gelbenzu, Lourdes
Mariñelarena eta Lourdes Garro.

nor da nor?

Nor da Nor?



Nortzuk azaltzen dira
argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenarako
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu
eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

IORTIA BUKALDIA DENTRAL HORTZ KLINIKA
Juanjo Gait García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SK **SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
*Suaren
kontrako
plakak*
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

Kaletik baserrira

Nolatan etorri zineten hona bizitzera?

Itziar: Haitz jaio baino lehenago Aratz Arrasatera etorri zen bizitzera, berak Arrasate ez zuen ikusten bizileku eta biok genuenez baserri baten bizitzeko gogo, pentsatzen jarri ginen. Ideia, baserri batera joatea zen, baina biotako bat behintzat bertatik bizitzea. Nik ordurako, ogia egiten nuen astean behin etxerako eta pentsatu genuen, ogia ongi egiten ikasi eta honetatik bizitzea.

Aratz: Lagun batek esan zigun ba-zeudela baserritar batzuk Itsason (Gipuzkoa) errelebo bila. Bertan fruta arboletatik eta ogia saltzetik bizi ziren. Beraiekin kontaktuan jarri eta han urtebete egon zen Itziar ikasten eta hiru hilabetez hirurok bertan bizitzen. Proiektu hori ez zen atera, baina oso gustura sentitu ginen horrelako landa eremu batean eta beste leku bat bilatzen hasi ginen.

I: Etxe honek obradorea jartzeko aukera ematen zigun, edozein etxek

ez zuen balio. Gainera guretzako ere garrantzitsua zen inguruan ume gehiago egotea, inguru euskaldun bat izatea... Eta Lezaeta gustatu zitzaigun. Gaur egun hiruzpalau familia bizi gara.

“Irin ekologikoak dira, harrizko errotan ehotuak eta ondoren bahetuak”

Zein ogi mota egiten duzue?

I: Espelta, gari eta zekale ogiak egiten ditugu, irin erdi osoarekin. Batzuk sesamodunak, beste batzuk mahaspasekin, forma ezberdinetakoak etab. Baita hur eta mahaspasa opil eta mota ezberdinetako pasta goxoak ere. Laster Balentzia aldera noa gluten gabeko ogi ekologikoak egiten ikastera.

Artisau ogia da zuena...

I: Bai, erabiltzen dugun makinaria

bakarra oragailua da. Hasiera batean ezer gabe hasi ginen, baina sorbaldak asko sufritu dezake. Gainerako guztia eskuz egiten dugu. Esan beharra dago kalitatezko lehengaiekin gabiltzala.

A: Irinak ekologikoak dira, harrizko errotan ehotuak eta ondoren bahetuak. Hilero irin berria erosten dugu eta horrela ehotu berria den irinarekin ogiaren kalitate hobea bermatzen dugu. Irina geroz eta zaharragoa izan, orduan eta oxidatuagoa egoten da, horren ondorioz, bere propietateak galtzen ditu.

I: Eta ura, Lezaetako ura da, baina iragazi egiten dugu, izan ditzakeen kloro hondarrak eta edozein kutsadura posible garbitzeko.

Zer esan nahi du osagai ekologikoekin egindako ogia dela esaten duzuenean?

I: Horrek esan nahi du osagaiak nekazaritza ekologikotik datozela, nekazariak ez dutela transgenikorik





erabiltzen, ezta lurra pestizida edo ongarririk kimikoez kutsatzen.

A: Elikagai osasuntsuagoak dira gutxi guretzat, kimikorik ez dutelako, transgenikoak ez direlako, luzera ondorioak izan ditzakegulako hau ez badugu zaintzen. Batez ere, kontu handia izan behar dugu gure txikiekin, beraien gorputzeko sistema guztiak garatzeko dutelako eta kimiko hauek bortitza goak dira beraiantzako.

Astean bitan egiten duzue ogia...

I: Hazkarriarekin edo berantzagiarekin egiten dugu lan. Hau da, ez dugu ura, irina eta gatza ez dan beste ezer ere erabiltzen prozesu guztian. Astelehenean astearterako eta ostegunean ostiralerako egiten dut ogia. Bakarrik egiten dut lan, nahiz eta batzuetan Aratzen laguntza izaten duan. Astean bitan erosita zapi batean bilduta ongi irauten duen ogia da.

Eskaera bidez saltzen duzue?

I: Bai. Astearte eta ostiral goizetan egiten dut banaketa, Betelun Maite Harategian, Lekunberrin Aliproxen eta belar dendan, eta gero Leitzara, Irurtzunera eta Jauntsaratsera joaten naiz. Eta Irurtzungo eta Leitzako fe-

rietara ere joaten naiz. Jendeak denetan jaso nahi badu, eskaera egitea komeni da, nahiz eta Maite Harategian beti uzten dudun ogiren bat edo beste.

Hasiera zer moduzkoa izan da?

I: Ongi, poliki-poliki lantzen joan behar da. Nik hasiera-hasieratik banekien ogi berezi bat zela, profil mota batentzako ogia.

Eta zein profil du bezero horrek?

I: Bere osasuna zaintzen duen pertsona, edo osasun arazoengatik elikadura ohiturak aldatzera behartu dituztenak (gastritis, hanturak, bizkarreko arazoak...).

Baita, arazorik izan gabe ere, jaten duen horri garrantzia ematen diona ere.

Itziar Egidazu eta Aratz Zubeldia, Arrasatekoa bata eta Hernanikoa bestea, orain dela urtebete etorri ziren Lezaetara bizitzera eta apirilaz geroztik Garai-koetxea baserrian bertan, egurrezko labean eta osagai ekologikoekin egindako ogia saltzen dute.

Eskaerak eta informazio gehiago:

626 138 405 / 948 113 125

lezaetakogia@gmail.com

<https://lezaetakoogia.wordpress.com/>

Animatu zaitez zu ere eta probatu!!!

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako Korre-
spontsala

948513056
699179437

Atabal
okindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldataurako platerak.
Ettxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

KONTU TXIKIAK

HUTSAK HUTS

AZKEN ALEKO HITZ-JATEA

Irailan zenbaki borobilarekin hasi genuen ikasturtea, 250. alearekin. Ez da edonolako zifra! Zenbat kontu, zenbat elkarrizketa, zenbat argazki bildu ote ditugun aldizkaria maketatzen daramagun 7 urte hauetan... Tartean baita hanka-sartzeak ere.

Diseinu berriarekin egin dugu oporretatik buelta, ordu asko eman ditugu aldizkariari ahalik eta aurpegi politena ematen, zuei aldizkari erakargarri eta kalitatezko bat eskaintzen saiatzeko. Estreinu berri honekin ordea, ez gara espero bezain zapore onarekin gelditu.

Zenbait akatsekin kaleratu genuen alea. Esaterako, Irakurle finenak konturatuko zineten moduan, hitz asko janda zeuden. Zehazki, "-etan" atzizkia eraman beharko luketen hitz guztiak, aldizkari guzti-guztiak!

Teknologia berriek asko errazten digute gure egunerokoa, baina zenbat lan ematen diguten askotan... Inprentara bidaltzeko prest dagoenean, azkeneko momentuan, klik batekin eta ohar-tu gabe maketa osoa hankaz gora jartzen dizunean...

Baina gure ardurak da teknologia eta egunerokoak dituen zirrikitu horien gainetik egotea, beraz, barka azkeneko alean egindako hanka-sartzeengatik.

Horietatik ere ikasiko dugu!

Labrit Multimediako taldea.

JOANDAKOAK GOGOAN

Joxe Ramon Iriarte Zubillaga

2017ko irailaren 21ean hil zen 34 urte zituela.

Intzetarron irria, herriaren dizdira, etxekoen argia, plazaren arima.

Lagunen laguna, iñoiz ahaztuko ez duguna.

Zure falta gudan da igarri, zure hutsunea somatzen dugu sarri.

Zauden lekuan zaudela, maite zaitugu laguna!

Herriko lagunak.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri



Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

aitzberri@hotmail.com

URRIA

10 | ARRIBE:

Euskal preso politikoen eskubideen alde bailaran lan ildo osatzeko bilera, arratsaldeko 19:00etan Araizko udaletxean.

11 | LEKUNBERRI:

20:00tan txupinazoa eta jaien hasiera.

15 | LEKUNBERRI:

Nafarroako Ardoaren Eguna.

22 | LEKUNBERRI:

Jardunaldi mikologikoak Lekunberriko frontoian.

29 | ARRIBE:

Araizko ekoizleen azoka Arriben.

BERTSOKABI – Eugenio Arraiza Sariketa

1. urriak 5 | Iruñeko Suberri Tabernan:

19:30ean. Iker Gorosterrazu eta Ander Baiano, Alazne Untxalo eta Irati Majuelo, Patxi Castillo eta Egoitz Gorosterrazu.

2. urriak 11 | Iruñeko Herriko Tabernan:

19:30ean. Joanes Illarregi eta Ekain Alegre, Josu Sanjurjo eta Iñigo Gorostarzu, Mikel Lasarte eta Idoia Granizo.

3. urriak 20 | Barañaingo Gaztetxean:

20:30ean. Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi, Saioa Alkaiza eta Aitor Irastortza, Saats Karasatorre eta Unai Artieda.

4. urriak 26 | Iruñeko Arrano Elkartean:

19:30ean. 1. Kanporaketako irabazleak, 2. Kanporaketako irabazleak, 3. Kanporaketako irabazleak.

SALGAI

- Lekunberri 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurtgailua...). Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaituz harremanetan: 630 041 480. .

BESTERIK

- Esperientzia duen Lekunberriko irakaslea arratsaldetan eskolaz kanpoko laguntza emateko prest. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan, euskaraz zein gaztelaniaz. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki hauetara: 617843925 / 948386678.

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberri, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaituz eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.



Lekunberriko Jaiak

2017

Urriak 11, asteazkena

- 12:30 Meza.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria eta ondoren musika.
- 17:30 Larraungo Pilota Goxua Txapelketa.
- 18:00 2017ko Jaietako kartel lehiaketako sari banaketa udaletxeko batzar aretoan.
- 20:00 Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 20:05 Zezensuzkoa eta Iraunkorriak txaranga.
- 22:30 Gazteen afaria karpan.
Menua: Patea, urdaiazpikoa, pasta, oilasko errea, postrea, edaria eta kafea. Sarrerak ohiko lekuetan salgai urriaren 7a arte (12 eurotan).
- 00:00 Trikidantz eta etxeko Dj-a karpan.
- 00:00 Musika Santxotena-ren eskutik Ainhoa tabernan.

Urriak 12, osteguna (Pilareko Eguna)

- 9:00 Goiz-soinua.
- 11:00 Meza.
- 12:00 Ezpelur erraldoi txikiak.
- 13:00 Aizkolariak.
- 14:00 Ajoarriero lehiaketa Euskalduna parean. (Izen-ematea eguerdiko hamabiak baino lehen. Saria: Urdaiazpiko bat).
- 17:00 Poker lehiaketa Jubilatuetan.
- 17:30 Erremonte jaialdia: Nafarroako Foru Komunitateko Torneoa. 2017ko Promoziozko Erremonte Finala.
- 17:30 Diskofesta umeentzat DJ Ismarekin.
- 20:30 Kale antzerkia, "DRAKONIA" Ainhoa taberna parean.
- 24:00 Caribe Mix mozorro gaua Ilargi tabernan.

Urriak 13, ostirala

- 9:00 Goiz-soinua.
- 11:00 Haur krosa.
- 13:00 Patata tortila lehiaketa.
Izen-ematea: eguerdiko hamabietan Euskalduna parean.
- 14:30 Herri bazkaria eta bingoa.
"JOSTAILU Gabe Jolastu" (Lekunberriko guraso talde batek antolaturik). Sarrerak udaletxean salgai urriaren 8ra arte.
- 17:30 Pilota.
- 17:30 Txapel jaurtiketa herriko plazan.
- 19:00 Pintxo Eguna.
(Babesleak: Lekunberriko Tabernak).
- 19:00 Aralar Musika Eskolako Trikitilari Taldea.
- 21:00 PLAY-BACK lehiaketa.
Eman izena 14:00ak baino lehen eta musika grabaturik ekarri. Saria: urdaiazpiko bat).
- 00:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin eta ondoren, Dj Isma.

Urriak 14, larunbata (Umeen Eguna)

- 9:00 Goiz-soinua.
- 11:00 Plater tiroketa.
- 12:00 Suziri txikia.
2016n jaiotakoei zapiak jarriko zaizkie.
- 12:00 Lekunberriko Kilikiak.
- 12:15 Puzgarriak.
- 13:00 Kalderete lehiaketa. (Izen-ematea: herriko plazan eguerdiko hamabiak baino lehen. Aurkezpena 14:00etan izango da, kalderetea bertan egin behar da. Saria: urdaiazpiko bat).
- 16:30 Puzgarriak Alde Zaharrear.
- 17:30 Pilota.
- 17:00 -19:30 Elektrozarata elektrotxaranga.
- 19:30 Bertso saioa karpan: Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Ane Labaka eta Andoni Egaña.
- 20:00 Mus txapelketa karpan.
- 24:00 Musika karpan: Mikel Sevillano eta ondoren, Dj.

Urriak 15, igandea

- 7:00 Herri gosaria Kattagorri elkartearen.
Menua: Urdaiazpikoa tomatearekin, edaria eta kafea (5 eurotan).
- 9:00 Goiz-soinua.
- 11:00 Meza.
- 11:30 Ardoren Eguna.
- 11:30 Puzgarriak eta txu-txu trenak .
- 13:00 Herri-kirolak: Inaxio Perurena harrijasotzailea.
- 16:30 Puzgarriak, Zezen gurpildunak eta txu-txu trenak.
- 17:30 Pilota partidak: Profesionalak.
- 19:00 Musika Mexikarra Karpan: "Puro Relajo" taldearekin.
- 20:00 Mus txapelketa Jubilatuetan.
- 20:30 Lindsay Beaver & The 24th St. Wailers zuzenean Kantinan.